

NAHIKOA DA!

“Titularrak eman eta eman jarraitzen du indarkeria matxistak. Kasu honetan, gainera, herriko lerroburu batean irakurri behar izan dugu albistea, Tolosan bertan.”

Hitzok irakurri genituen azkenekoz plaza honetan bildu ginenean, eta, tamalez, ez dira zaharkituak geratu. Zaharrak berri gurean. Emakume bat erasotua, bortxatua, izan da gure herrian. Tolosan.

Erasoa jasan duen emakumeari gure babes osoa helarazten diogu. Hemen gauzka, eta hemen gaude, beste behin, are nazkatuago “nazkatuta gaudela” errepikatzeaz. Nola ez ba? Sistema heteropatriakal kapitalistak eskema garbia du eta: menpekoak batetik eta menperatzaileak bestetik, gainetik. Eta binomio horretan indarkeria matxistak ez du mugarik. Bortxaketaren kulturari bizi gara: mezu zapaltzaileak nonahi -ospatzen ari diren sanferminetan, esaterako, "chupa y calla" edota "aquí manda mi polla" diotenak kale saltzaileen pinetan; "kontuz ibili"-ak naturalizatzea ardura gurea balitz bezala, emakumeak objektu bihurtzea... horrek guztiak jomuga bat eta bakarra du: zapalkuntza, erasoa, indarkeria.

Errealitate hau iraultzeko, ezinbestekoa da eragile sozial, politiko eta instituzional guztien ardura pertsonal eta kolektiboa. Hitzetatik ekintzetara pasatzea. Puntu moreak behatz erakusleagatik aldatzea, pribilegiatuden gizonei azkura eragitea -deserotzea-, beraiek atzera egin eta guk lekua hartzea, beldurra eta ardura aldeztuz aldatzea, izen abizenak erasotzaileari eta ez erasotuari jartzea, eta gertatuakoa behar den moduan izendatzea.

Larunbatean pasatakoa, bortxaketa bat izan da. Gizon batek emakume bati egindakoa. Horrexegatik bakarrik, emakume gisa irakurria izan delako. Gure herrian, Tolosan. Zeren bai, biolentzia matxista ez da urruneko kontua, ezta isolatua ere. Gertu dago, gertuegi.

Horregatik, Tolosako Asanblada Feministako kideok gogor salatu nahi dugu gertatutakoa. Gogora ekarri nahi dugu autodefentsan lanean jarraituko dugula eta parean izango gaituzuela. Feministok erantzuteko prest gaude!

GORA BORROKA FEMINISTA

TOLOSAKO ASANBLADA FEMINISTA